

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA**2. ordenantza**

I. Gutxieneko kuoten gainean aplikatu beharreko indizeen eskala.

Jarduera-lokalaren kalearen kategoria lurren gaineko kontribuzioaren zerga-poligonazioari dagokionez, eta aplikatu beharreko indizea:

- 0., 1. eta 2. poligonoak: 1,40
- 3., 4. eta 5. poligonoak: 1,38
- 6. eta 7. poligonoak: 1,36
- 8. eta 9. poligonoak: 1,34
- 10., 11. eta 12. poligonoak: 1,32

II.- Kuota gutxitzeko irizpideak, eremu publikoan egin beharreko obrek hiru hilabete baino gehiago iraun eta maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen 6. dibisioan sailkatutako jardueren egoitza diren lokalak ukitzen badituzte.

1.- Baldin eta eremu publikoan obrak egitean obrek hiru hilabete baino gehiago iraun eta merkataritzari, jatetxeei, ostalaritzari eta konponketei dagozkien jardueren egoitza diren lokalak (maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen 6. dibisioan sailkatutako jardueren egoitza direnak) ukitzen badituzte, eta jarduera horiek udal-kuota ordaintzen badute, subjektu pasiboek kuota hori gehienez ere % 80 murrizteko eskatu ahalko diote Udalari.

2.- Obren iraupena murrizketa emateko baldintza da, halako eran non bakarrik emanen baitira obrek hiru hilabete baino gehiago irauten badute, eta, betiere, haien esparrua proiektu edo esleipen bakar batean jasoz gero. Aurrekoa gorabehera, obrek lokal jakin bat ukitu bitarteko epeak ez du zertan izan obra egiteko epe bera. Horrenbestez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuoten hobaria obrek lokala zenbateraino eta noiztik noiz arte ukitu eta irizpide horien arabera kalkulatuko dira.

3.- Kuota-murrizketaren ehunekoa obrek lokaletan duten eraginaren arabera graduatze aldera, lokalak zenbateraino ukituak diren eta horren arabera sailkatuko dira, betiere honako hauei buruz txosten teknikoa eman eta gero:

- Lehena. Obrek zuzenean edo zeharka ukitzen dituzten eta lokalak obrak hartutako eremuan dauden kaleetan edo haien inguruetan kokaturik dauden.

- Bigarrena. Obrek eragina handia edo txikia duten –zuzenean ukitutakotzat sailkatutako lokalen kasuan– edo eragin ertaina, baxua edo ia ezdeusa –zeharka ukitutakotzat jotakoaren artean–.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota murrizteko ehunekoa, ukipen-mota bakoitzean, taula hau aplikatuta aterako da:

Kalea edo kale-tartea zenbateraino ukitu	Eragin-maila	Murrizketaren ehunekoa (*) Jarduera Ekonomikoen Zergan
Zuzeneko ukipena (lokalak, obren eremuetan)	1. fasea (eragin handia)	% 80
	2. fasea (eragin txikia)	% 40
Zeharkako ukipena (lokalak, obren eremuaren inguruetan)	Eragin ertaina	% 40
	Eragin txikia	% 20
	Kasik eraginik ez	% 0

(*) Kasuan-kasuan finkatzen den murrizketaren ehunekoa (% 80, % 40 eta % 20) obrek lokalak zenbateraino ukitu eta horren arabera kalkulatu den guztizkoa da; horrenbestez, bakarrik aplikatu ahalko da oso-osorik, baldin eta egoerak epe osoa bitartean irauten badu (urtebetea).

4.- Obrek lokala noiz arte ukitu eta horrek zedarrutuko du aplikatu behar den murrizketaren ehunekoa. Horrenbestez, lokal bakoitzerako, aurreko puntuan ukipen-mailaren arabera egokitutako ehunekoa koefiziente batekin haztatuko da, obrek lokala ukiturik duten hilabete-kopurua urtearen hamabi hilabeteen artean zatituz ateratzen denarekin haztatu ere: $(K = \text{hilabete kopurua}/12)$

Onartuko da ukipen-epea astetan zatikatzea, halako eran non aste bat hilabete baten laurdentzat joko baita (0,25).

Baldin eta obrak egin bitartean lokalaren ukipenaren eragin-maila bat baino gehiago bada, kuota murrizteko guztizko ehunekoa ehuneko partzialak batuz aterako da, betiere ehunekoak aurreko irizpidearekin bat kalkulatu eta gero.

5.- Behin murrizketa eman eta gero, behar gabe jasotako diru-sarrerak itzuliko dira, murrizketak zenbat jo eta hainbeste itzuli ere.

III.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Ikuskapena.

1.- Iruñeko Udalak zerga horren ikuskapena egingen du udal-kuotei dagokienez, hau da, Iruñeko Udalaren mugapean egiten diren jardueren gaineko kuotei dagokienez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onetsi zituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legeak emandako Jarraibidearen 17. arauan xedatutakoarekin bat eta Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak ekainaren 8an emandako 87/2009 Foru Aginduan xedatutako eskuordetzaren hedadura, baldintzak eta iraupena aintzat hartuta.

2.- Iruñeko Udala elkarlanean arituko da Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin zerga ikuskatzeko lurraldeko eta nazioko kuotei dagokienez, Iruñeko Udalak ordainarazi beharreko kuotak subjektu pasiboaren helbide fiskala udal horren mugapean dagoen kasuetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onetsi zituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legeak emandako Jarraibidearen 17. arauan xedatutakoarekin bat eta Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak ekainaren 8an emandako 87/2009 Foru Aginduan xedatutako elkarlanaren hedaduran, baldintzak eta iraupena aintzat hartuta.